

KarKara

64A

64. zenbakia

Orio eta Aiako aldizkaria

1997ko urria



JAUN ETA JABE

DOSSIERRA: Estropadak • AIA: Pello Pagadizabal

DORRONSORO JANARIDENDA

Abestari, 3 83 09 37



Pelotari, 1 83 25 65

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

83 00 89

OPITZ

Horma zabaleko oinetakoak
Gizon eta emakumeentzat

- HANALDEko iride (HAragi NATuralearen ALDeko Elkarte)
- Kalitatezko haragia. Guk hazitako txekorrak. Txekorren jatena garantiduna da (ISO 9001)
- Guak egindako txarkuteria: txorizoak, urdaiaztipoak, solomoak...
- Lehen saria Beasain eta Tolosako Odolki Lehiaketetan

PA
C
SO
KA
OINETAKOAK

Haurrentzako
oinetako guztia
1.000
eta
2.000
pezetan
San Nikolas, 9 behe
Telf.: 83 28 05

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

TFNOA: 83 06 09

URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI, 7
TFNOA 83 12 36



Zure guztoko arropak

Estrujalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16

Itsas-Ondo

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak

13 11 79 (herrikoa)
 83 39 61 (hondartzakoa)

Itsas-Ondo

ORIO

AUTO-ESKOLA

TFNOA: 83 57 19

Egin eza zu publizitatea

KarKara

aldizkarian

83 15 27

4 GUTUNAK
5 HERRIAN GALDEZKA
Zer gertatuko da kanpinarekin?

6 HERRIKO KONTUAK
11 KIROLAK
14 IRITZIA Idoia San Sebastian
15 AIAKO KARKARA
ELKARRIZKETA Pello Pagadizabal
19 GAIA Jaun eta jabe. Estropaden kronika
24 DENETIK PIXKA BAT

Euskaldun berriak: Jabier Gaitón
Zinemaldiko kritika
Arkaizpe elkartea
Zorionak eta zoriotxarrak
Jaiotakoak, hildakoak eta ezkondutakoak
Orain dela 25 urte
Nire honetan
Kanpoan daudenak: Eleuteria Salsamendi
29 KOLABORAZIOA Hezkuntza eta/edo orientazioa
30 AZKENA
31 GURE ZAHARREN AHOTIK
Ramon Solaberrieta 'Erramulino'

1997KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako
balio dute. Publizitatea urteko
zenbaki guztietan jarri nahi dutenei
% 10eko deskontua egindo diegu
prezio hauen gainean (urtean
hamar zenbaki argitaratzen
ditugu).



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Eusko Etxekoei

Egitarri zor zuion begirunearengatik behartuta nego San Pedrotako alean idatziz muen gauza bat zuzentzera. Orduan idatzi zuen: "Ea nolz sortzen den Orion soziiedad bat sexuagatik jendea bereizten ez duena". Baina Eusko Etxe elkartean hori dagoeneko errealitate bat da, eta emakumeak, ez bakarrak sartu, sozio izan ere badim. Honenbestez okerra zuzenduta geratu delakoan, agur.

IRAKI ITURAIN

Orioko zine foruma

Gutuneko hanen bidez eskaintza berri bat egin nahi diet herritar guztiet, eta, batez ere, Orioko zinezaleei. Dihoaia aurretek ezer saltzekoik ez dudala; hala ere, aurkeztuko dudan eskaintza ez da nolanañiko eta, nire uste apalean, merezi du arreto.

Kultura etxeko areto nagusia hornitu berría da, eta bertan erabiliengarri ugari izango dituen soinu elkipoa, pantaila eta proiektorearen dadea. Ekipamendu horrek edozein CD-ROM edo bideo zintza arruntetaz gozatzeko aukera ematen du, tamaina handiko pantailan. Hemenrik aurrera ohizkoak izango dira bideo emanaldiak, diapositiba proiekzioak eta antzekoak. Herríko edozein talde edo pertsonak erraz antolatu ahal izango du halakoik herritarrei zerbalteri berri emateko, zer edo zer irakasteko, eta. Orioko Surf Taldeak, adibidez, herritar guztiet trekiak izango diren bideo emanaldiak antolatuko ditu laistea.

Aukera ez da edonolakoa, eta, normalena, herriko zineforumak sortzea litzateke. Hala izan bedi. Foroak irekia, publikoa, ogerikoa behar du izan, eta, horrela, oso eginen interesgarria izan daiteke. Eta gauza ez da intelectualismoan galitzea, alderantziz, talde heterogeneo bat sortzea litzateke hoberena; ez da jakituriarik eskatzen, soil-solik zinea gustatzea baitik. Foro horietan parte hartzen ez du konpromezu handirik eskatzen; bakoitzaz azal dadila nahi edo ahal duenean, bakoitzak proposatu ditzala nahi dituen filmeak..

Ez dut etorkizuna inadikatzen jarraituko, eta datorren zine foruma izan dadila biltzen diren herritarren iniziatiua. Hamabostean behin, doan, pantaila handi batean filme bat ikustea ez dut uste osasunarentzat kaltegarria denik, eta ez noa gehiago lizatzen. Hor dago aukera

eta, nahi baduzu, antza zaitez,

Lehenengo emanaldia Kultur Etxeko areto nagusian, urriaren 9an, arratsaldeko zozpil eta erdiletan izango da. Lehendabiziko salo horretarako zein filme eman erabakitzeko izan ez dugunez, nire esku gelditzen da lehenengo filme sorpresa.

ÍñIGO FERNANDEZ

Mila esker

Dakizuen bezala, abuztuaren 30ean Orioko hondartzan gure hizkuntza eta kultura builtatzeko jakaldit bat antolatu genuen, bat herritarak eta bat karpinean hala karpatik etorrak jende ugari parie hartu zuen, euskal bizitzeko eskubidea euskal herritarren eskubidea dela azpinarratuz. Beraz, eskerrak emari nahi genitzkleke Sofbol taldea, Dilistak, Surf Taldea, Orioko Udalak, Harribil dantza taldea, XUGA, Bertso eskola eta parte hartu zuten gainontzeko guztiet, jaialdi hau posible egiten lagundu zutelako. Besterik gabe, hurrengoan ere zuen loguntza izango dugulakoan agurtzen gara.

ORIOKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Estropadak edo futbola?

Gaur egungo gizakia nortasuna gaitez arri da, jendeak gero eta antz handiagoa du elkarren artean eta herrien bizi moduak ere bait. Ikara ematen du jakitea zenbat jende dagoen, egunero eta aldi berean, gauza bera egiten. Gizatasuna pobretzen arri da eta erritudun nagusia telebistioa da. Giza aberastasuna lotuta dago desbentitasunarekin eta gutxiengoezin; gizakiak bere bidea ibili behar du eta libreki elkartu gaineratzekoak.

Hau esanda, begibistakoa da arrauna futbola batzko garrantzizkoagoa dela, askoz ere; batza San Pedro edo San Juan irabaztean Alemania edo Rusiako irabaztea baita. Azken linea zer da Alemania niretzat, hango kultura eta historia nolabait ezagutu arren? Pasai eta Getaria, berriz, bigi-bigirik daude nire bizipenetan, nire orotzapenetan. Lasarte Michelini irabaztea bait zela gauza handia! gogoratzen? Galera estropadariak ez dira telebistioaren bidez ezagututako sasibakoak. Ez, gure herriko koleetan ikusten ditugu: Jose Luis Korta, Orio berriz bere lekura ekarri duen gizona, ezagutzen

al ditzue Cyrano de Bergerac oriotar horien antzekorik inor munduan? Txiki Larrañaga, dagoeneko bere izena gure historian dago, eta arraunari guztienetan ere bait. Egiten ari direna ez da estropadak irabazte hutsa, gure euskal urrima indartzen ari dira, Orio eta oriotarron nortasuna biziberritzen eta gure arbasoen ametsak berplazten.

Eta arraunaleak zer? Lehenengo batean Orioi 12 lagun arraunaz hitz egiten ari ziren, basoerdi barra hartuz. Ez zegoen trizt berdinik hainen artean, nahiz denak Orioi aldekoak izan eta denak haserre egen. Kontrakoik gabe ez gara ezer. Norbaitek Donostialako kale batean oihu egin dezala: Aupa San Pedro, nik entzun egin nahi dut eta, Aupa Orioi erantzuteko, nerbioek uzten badidate behintzat.

Futbola nazioarteko kirol bat besterik ez da. Arrauna, berriz, gizakion ondarea, nahiz eta inork babestu ez eta batzuek koitze larriak eragiten dizkieten.

GABRIEL LOIDI

(DVTK HARTU ETA EUSKARATUA)



OHARRA

Pasa den udako hilabete hametan hainbat gaua jaso ditugu KARKARAren egilearen izenik gabe. Pena ematen digu gauan interesgarri horiek argitaratu gabe uzteta, hain zuzen gogoratzen nahi diegue gutunak egile izenaren eman behar ditzakuenetik publikatzea nahi baduzune.

Dagoeneko izan dugun gorabeheraren bat konta horrekin eta arau hori zorrozo bezero dugu aurrezantzen. Zeresana dumatik hautze du tokia gure aldiakarian; basua, laborez, bakotzak har dentsia bere gain esaten duenaren erantzukizuna.

Sare publikatu ditugu urri horietan, baita ostera gogoratzeko ditzugu zein diren arazak KARKARAren gutunak argitaratzeko. Hauek dituztene:

KARKARA ez du argitaratuko izenik gabe datormen gutunak. Egileak hala nahi badu, izenarenak argitaratuko dugu; basua, beti, guk egles nor den jakintza.

KARKARA ez du bere gain hartzetako aldiakirian ateraztako esanen edota iritzien erantzukizunak.

KARKARA argitaratutako berremen datetik, usorik edo zatikak, basuin eta iturria aipatzeko bidea.

KARKARA bere egiten du eskutitzak laburteko eskatibidea.

Zer gertatuko da kanpinarekin?

Hondartza ingurua erabat aldatua dago, etxeak bota egin dituzte, eta herritarrek, bien bitartean, zer egingo duten zain. Kanpina ere aldatzekotan dago eta bertako bezeroak ere kezkatuta daudela jakin dugu. Horregatik, oraingo honetarako berengana jo dugu, kanpisten iritzia jakiteko.

**BEGONA GOENAGA**

50 urte (Ibarra)

Hoberako ez da izango. Lehengo lasaitasun eta giro goxoa arnarea emango zaio eta Orioko hondartzak lehen zuen berezitasun hori galdu egingo du. Hogeit urte daramatzatkan- pinera etortzen eta, zehazki zer gertatuko den ez badakigu ere, pena izango da.

**AMAIA SANTAMARÍA**

18 urte (Arrasate)

Oso-oso gazti jao baino leheragotik hemen naiz; hemen ditut lagunak, eta, agian, beste kanpin batera alde egin beharko dugu. Etxebitzek ez dute zontzun. Orioko hondartzan. Dena aldatuko da kanpinak kategoria aldatuko du, jende gutxiago etorriko da, eta bi arrazoi hauengatik kanpina miretagotu egin beharko date.

XABIER URKIA

23 urte (Tolosa)

Oso gazti. Informazioa ikutatzera an diri, oraindik inork ez dala konkretuki zer egin behar duten. Baina esan diteragatik dugun ingurugrera apurtu behardute, lanpostu batzuk apurtu dituzte... eta egin behar dituzten etxe honek norantzira dira! Azkenean, dira lauen artean banatuko dute.

**MIKEL IGORA**

50 urte (Hernani)

Udaletxea ez da gutxiz arduratsuen eta kalera bultzatzen arri zaizkigu, ez du ezertz informatu, baderudi 300 etxebizitza-edo egin behar dituztela, baina honek hernari ez diote kanpistek aldiarri, diru utzik. Orangoz lanpostu desentente pikutara doaz eta, ganera, Orio sar al danteke hornen erraz horrelako aurrekontu batean?



Orioko Ogia



Hondartza inguruko lanak hasi dira

Obrak martxan dira, baina oraindik ez dituzte bota edifizio guztiak

Dagoeneko hasi dira eskabadorak hondartza aldean lanean, datorren urteko uda hasierarako malekoia bukatzeako asmoz. Beno, lanean hasi uztailean hasi ziren, orduan bota baitzituzten hondartzako zenbait edifizio. Hala ere, lan handiak edo nagusiak Kontxa ondorengo astean hasi zituzten, orduan bota baitzituzten hondartzan zutik segitzen zuten edifizio gehienak, DYArena eta Txinparta izan ezik.

Aurreko alean Jose Miguel Makazaga alkateak alpatzen zigunez, Udalaren asmoa da 1998ko uda hasieran hondartzako lurra eta partzelak interesatzen zaizkien guztiei eskaintzea.

Dagoeneko lur mugimendu handienak hasi dituzten arren, DY Arena eta Txinparta tabernaren edifizioek zutik daude oraindik.

UDA BEREZIA

Orioko hondartzaren itxura berezia izan da aurtengo udan, Uda hasieran, uztaila aldean, Mariñela jatetxea eta inguruko beste zenbait txalet bota zituzten, lanak aurreratze-

ko asmoz. Bide batez, jendearentzako arriskuak ebitatu zituzten, eraikin horiek ordura arte abandonatuta baitzeuden.

KANPIN TXIKIAGOA

Baina hondartza aldeko edifizioez gain, kanpineko tenis eta squash-eko pistak ere bota dituzte, eta inguru hartako kanpistek utzi egin behar izan dute urtetan okupatutako lekuak.

KARKARA honetan ikusten denez, aldaketak iritzit kontrajarriak sortarazi ditu kanpinean, eta zenbaitek ez dute projektua oso argi ikusten.




Goiko argazkia historikoa da dagoeneko, hondartzak galdus baitu lehengo itxura. Nola koztua izango oto da Orioko hondartza berria urtebeteko barru!



ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA
Lasaitasuna eta giro ona

Harribil dantza taldea Baltanasesen

Harribil taldean Baltanaseko (Palencia) kultur astean izan zen beste lau dantza talderekin batera abuztuaren 9 eta 10ean. Miguel Puertas erdi-oriotarrak, bertako alkateak, egin zien ongi etorria. Dantza taldeko kideek esan dugutenez, oso ondo pasa zuten.

Oriolar ezagunak HBko Mahai Nazionalaren epaiketaren aurka

Gozategi musika taldeak, Benito Lertxundik eta Orioko trañeruak sinatu egin dute HBko Mahai Nazionalaren kontrako epaiketa salatuz Alternatiba Demokratikoaren aldeko plataformak idatzitako agiria.

Bi atxilotu udan

Patxi Uranga intsumisoa eta Eutimio Fernandez atxilotuak izan ziren udan. Patxi kalean da dagoeneko,



Argazkian giztiak ozaltzen ex badira ere, 90 lagun izan ziren Saint Ciersora.

Arrakasta handiz ospatu zen Saint Ciers-en senidetze festa

Herriko 90 lagun izan ziren abuztuaren 30 eta 31ean Saint Ciers sur Gironden, hango Udalak antolatutako Herri Senideen Festan. Saint Ciers senidetuta dago Oriorekin 1993az gerotik eta aurien festa handi batekin ospatu dute. Orio gain festan parte hartu zuten, baita ere, Madriloko Sevilla la Nueva eta Errumanako Iyanetu herriek, biak ere Saint Ciersekin senidetuta baitaude.

Oriolarrek partehartze zabala izan zuten festan: eskusoinu orkestraren kontzertua, arraunari gazteen estropada, euskal dantza saioa. Salatxo Txikiren kantaldia mezetan, hamaitakoa. Ostargi taldearen eskulanen erakusketa... Iñaki Perurena harrijasotzaileak ere erakustaldia eskaini zuen. Bidoia dohain izan zen, baina Orioko Udalak baldintza bat jarri zien bertara jeondakoet: hurrena Saint Ciersekoak datozenetan hiekk etxeen hartzera.

Orioko tren geltokia erre dute

Iraillaren 27ko goizaldean ezezagun batzuek Eusko Trenen geltokiko bulegoari su eman zioten molotov koktelekin eta kalte handiak sortu zituzten bertako tresnerian. Hala ere, tren zerbitzua ez zen eten hurrengo egunetan.

Hori ez da izan aurtengo uda honetan nahita egindako erreketeta bakarra, uztailaren 22an BBVren sukurtsalari ere su emai haitzioien molotov koktelak erabiliz.

Azaroan kontzertua antolatzeko asmoa du XUGAK

Xurrumurru Gazte Asanbladak azaroan kontzertu bat antolatzeko asmoa du ikastolako pergola eta Udalaren buimenearen zain dago.

Antolaketa lanetan parte hartzeko gogoa dutenak XUGAren lokalean azalku daitezke, Iturbide 7an (urratsaldez).

**Juantxo
HARATEGIA**

Telefona: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA

KIROMASAIA ESTHETICIEN

ENDAIA, 3 Tfnoa: 83 18 97

AHOLKULARITZA
Fiskala, Laborala, Kontablea

ASEGURU ARTEKARIA



Eugenio Garmendia

Ibai Ondo, 1 Tfno: 83 44 66 - 83 49 17

SARRIO KERAK



TEL: 92 41
92 41 00 00 22
92 41 00 00 22
92 41 00 00 22

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoak: 83 00 05
13 25 32



Iparraldearen
Eguna ohikoa
bihurtu da udako
jaien programazioan. Aurren
argazkian
azaltzen diren
Urdiñarbeko
dantzari taldea,
Noel Elorza, Jean
Mixel Bedaxagar
eta Zartantxu
Kantaria eta Mikel
Urbeltz biolinista
les izan dira Ipar
Euskal Herriko
'embaxadore'-ak.

Jende ugari bildu zen Iparraldearen Egunean

Ohi denez, auriengoa udan ere Udaleko Kultura Batzordeak antolatu zuen Iparraldearen eguna, Ipar Euskal Herriko musika eta dantzari eskainitako eguna. Aurren abuztuaren 24an, igandea, ospatutako orain arteko bosgarren dia eta dagoneko ohikoa bihurtu da udan. Auriengoa Iparraldearen eguna abuztuaren 24aren bezperan hasteko zen. Noel Elorza behenafarrak eta Jean Mixel Bedaxagar zuherotarrak eskainitako hitzaldi-kantaldiarekin; baina, oso jende gutxi azalku zenez, bertan behera utzi zuten ekitaldia.

Iparraldearen eguneko ekitaldiak kalejirarekin hasi ziren, Urdiñarbeko (Zuberoa) dantza taldearen eta Jean Mixel Bedaxagarren eskutik. Ondo-

ren, Iparraldeko dantzari gta txuskariek eta zenbait oriotarrek bazkaria egin zuen Altzerri jatetxeen, oso giro onean. Arratsaldean, aurreko eguneko hitzaldi-kantaldiak ez bezala, jende ugari bildu zen Iparraldeko artistek plazan eskaintzen emanaldian. Gainera, egun hartan errezipimendua ere izan zen, eta plaza jendez gainezka zegoen.

Noel Elorza Iparraldearen Egunean Jose Miguel Leunda Kultur zinegotziari adierazi zionez. Oriok hobe Iker Euskal Herriko herrien botekin senidezera Sant Ciers eta Italiako Oriorekin egitea batio, orduan bai sendotuko hiztekeelako Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harrenganak.

Merkataritzari buruzko jardunaldi teknikoak antolatu ditu Arkupek

Arkupe dendarri, merkatari eta profesionalen elkarteark merkatari buruzko bitgarren jardunaldi teknikoak antolatu ditu aurien. Abendura bitartean hainbat ikastaroan honako galak jorratuko dituzte: asoziazionismoa, gestio ekonomikoa eta marketinaren gestioa. Informazio gehiago nahi izanez gero, dittu 83 03 66 telefonora eta hitz egin Marian Manterolarekin.

Bardeetako argazkiak Salatxon

Luisa Maria Arnaiz irundarrak Nafarroako Bardeetan ateratako 14 argazkiak daitezke urriaren 29 bitartean Salatxo taberman. Argazkiak, irtaro ezberdinak aterata daude eta Bardeek garai bakotzean eskaintzen duten argi eta kolore aniztasuna erakusten dute.

URBAZTER ASEGURUA

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14


- ▶ Transferentziak
- ▶ Lizentziak
- ▶ Eskriturak
- ▶ Penalak
- ▶ Errenta Aitorpenak
- ▶ Bidaia, e.a.

Carmen
ARRAINDEGIA

Teléfono: 83 05 37

TXOMIN
arrayaindegia

Tfnoa: 83 27 47





Zaharren Babes Lekuko jubilatuak gelditu gabe dabiltza

Zaharren Babes Lekuko jubilatuak hara eta hona dabiltza, gelditu ere egin gabe urte osoan. Udaran ere bi bidaia egin dituzte. Aurrena Saloun izan ziren astebetea pasatzen: elainaren 16tik 21era. Orduan ateratakoo da goiko argazkia. Horretaz gain, Calahorrara ere joan ziren, egun pasa, irailaren 18an.

Urriaren 8rako, berriz, egun osoko eskurtsioa antolatu dute jubilatuak Landetara. Irteera 07:45etan izango da. Jubilatuak geldialdiak egingo dituzten Irun, Hendai eta Pey-en; eta, ondoren, Capbretonen buzkalduko dute. Eskurtsioaren prezioa 2.400 PTAKoa da.

Bestalde, Babes Lekuko juntak arau berriak

Jarri ditu eskurtsiotako txartelen banaketa antolatu eta sesioak ebitatzeko:

- Txartelak astelehenetik ostiralera bitartean banatuak dira. 17:00etik 19:00etara. Tartean jaiegunen bat tokatzen bada, egun horretan ez da txartelik banatuak.
- Txartela hartzeko kolan jartzen direnek bertan egon beharko dute beren txanda tritsi arte. Ez du balio tzango txanda hurrengoari utzi eta kolatik aldegitea.
- Bi autobuseko eskurtsioetan hiru txartel emanago zaizkie. gehienez, bakottzart. Bi autobusekoetan, ostera, bina txartel banatuak dira, asko jota.



Hiletak eta zerbitzu orokorrak

- ✓ Donostia eta probintziako ospitaleetan
- ✓ Aldioroko zerbitzua
- ✓ Belotorio gelak
- ✓ Kardiolak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel/Fax: 13 22 52



Ainola egiteko eta denbora liburuak
arrupa eta ekipamenduak

Tfnoa: 83 21 60

IL GELATO

Etxeko helatuak eta
kruasanak

San Nikolas, 17 Tfnoa 131747

handik eta hemendik

AMARI

Arrasotaria

"Hori edo edozetin zikinkeri harri gabe ni igual thiklo naiz. Orain motibo gehiago ematen dit beste pare bat urte segitzeko".
(Euskadi Irratia, 97-09-25)

JOSE LUIS KORTA

Entrenatzailea

"Fontan ez dugu izoratu, ez Cuestak eta ez nik, berak du emu guzti profesionala ez izateagatik eta uriero trainererik onena San Pedroren-tzat egiteagatik".
(DV, 97-09-18)

JOXE MARI OSTOLAZA

'XALBALDI'

Kaizteria

"Arrauniariek, berriz ere, beren giza maila erakutsi digute, euskal presoekiko elkartasuna adieraziz. Berriz ere eredugarriztan ditugu".
(Argia, 97-09-14)

ELIZALDE

Igeltseritza

Lan Rustikoak

Arkatzak eta betonaztok
Teldiazak
Egit eta hormazko estrukturen harrizko
Eraberritze lanak baserri
eta etxebizitzetan
Igeltseritza orokorki
Arkitxto teknikoen
egindako proiektu eta
lkerketa

83 11 15

ZARAUTZ

Marta Etxebarri 1. B.3.

13 49 09

ORSO

Kai, 2. 1. eski.

Udazkena iritsi da, eguraldiarenengatik behintzat urtariori trazak hartzea oso zaila den arren. Hala ere, oriotarrok badugu udazkenaren etorrera adierazten digun seinale paregabea: ETBko Goenkale. Izen ere, udako oporraldien ostean, herriko plazan eta beste zenbait txokotan pilatzen diren kamara, argi, kable, kamioitzar eta aurpegi ezagunek udazkena iritsi delu erakusten dute.

ERREFERENDUMA:

Baina udazkenari heldu aurretik, pasa den udako balantza edo atzeru begiratua egiteko garaia da. Izen ere, auriengoa ez baita izan uda arrunta oriotarontzat. Agian, mugarría izan daiteke auriengo uda Oriorren historia txikian. Agur hondartzaren egungo itxura eta xarmari; agur hondartzako etxe eta jatekxeet; baita kanpinaren zati batirete.

Baina lasai, hondartzako planetik ateratako dirtuarekin ordainduko baitute kirodegia. Martxa honetan Diputazioak jubilatu eta ematen dizkien txandarrak soinean ditugula sartuko gara lehen aldiz kirodegira.

Galdera bat: Ez al da zuzenagoa hondartzako ingurune guztia aldatuko duten lanak egin aurretik herriari bere iritzia eskatzea erreferendum baten biltarte? Politikariak herritarren ordezkarriak dira. Bale, baina neurri horretako

erabakiak hartu aurretik herriari iritzia edo baimena eskatu behar zaiola uste dut.

HONDARTZA:

Baina Orion udako bizitzaren erritmoa herriko traineruaren arraunkadek ezartzen dute eta herriko bihotza arraunek uretan emandako taupadek mugi aratzten dute. Gainera, urtero bezala, aurten ere ez da faltatu Orio protagonista izan duen iskanbilariak uretak ikano ere ibeste askoren lasaitasunera.

Iaz Gozategitarrek udako kantuarekin asmatu zuten. Aurtent, berriz, Arraun Elkarteak eta Udalak udako galdera asmatu dute. Euskal Herriko kostaldean behintzat: Hondartzan? Orio-ko hondartzari buruzko publizitatea egin nahi bazuten, lortu dute.

Nahita ala nahigabe, marketin kampaña bikaina. Galderak egitea ondo dago, baina erantzunak ematea ere bai. Uda osoan ez dut entzun edo irakurri galderaren zergatia azaldu duen tajuzko azalpenik. Beraz, ordainen bat merezi dute, uda osoan galdera behin eta berriz erantzun duten edo erantzutzen saiatu diren oriotarrek.

CALCUTAKO AMA TERESARI:

Oriok Kontxako bandera irabazi du, Eromena Donostiako portuan. Kazetariak Kortarengana. Galdera tipikoa: Nori eskuintzen diozu garipena? Erantzun

tipikoa familiari eta jarraitzaileei eskauntza litzateke, baina, jakina, Korta is different eta bere erantzuna: Calcutako Amako Teresari. Zergatik ez Lady Di sanhuari ala Espainiako Cristina infanta eta Iñaki Urdangarin?

SENIETZEAK NOREKIN!

Aurten bosgarren Iparraldearen Eguna ospatu da Orion eta Noel Elorga izan zen gure artean. Jose Miguel Leundar komentario bat egin zion. Oriok hobetukeela Ipar Euskal Herriko herriren batekin senidetuko balitz, horrela gehiago estutu eta sendotuko bailitzateneke Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremana. Proposamen egokia.

Gaur egun Orio bi herriekin dago senidetuta. Alde batetik, Frantziako Saint Ciers eta, bestetik, Italiako Orio-Canavese. Nork erabalditzen du Orio zein herriekin senidetu den? Zein irizpide jarraitzen ditu ankeraketan?

ZERGATIK!

Elezagun batzuek abuztuan BBVren sukurttsala eta irailean Eusko Trenen geltokiiko bulegoa erre-zuten. Zergatik? Nori egiten dio mesede ekintza horrek? Inori ez. Nort kalte? Guztioi.

Galdera orokorrako bat orain: Non dago Euskal Herriko Stormont-eko gaztelua?

JAMES GOIKOETXEA

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK *

EGUNEKO MENUA

83 00 44 / 13 20 26

Herriko Plaza, 4

EROSLE

AUTOZERBITZUA

• TRAGOXKA •

PUB

Arizaga, 11

01 08 25

Juan Albizu
elektragailuak

Eta orain

Sukaldeko
altzariak!

Tfnoa: 83 12 49

Aldaketa ugari futbol taldean

Aurten aldaketa ugari izan da futbol taldean. Regionaletako taldean jokalari berri hauek hasi dira: Imanol Atozagaistia, Eneko Mantaola, Eneko Ostolaza, Mario Padrones, Jon San Sebastian, Harkaitz Agirre, Xabier Ibarbia eta Juanjo Rubio. Ekipoa utzi dutenak, berriz, hauek dira: Jaime Colado (hemendik aurrera jubenilen entrenatzaile izango dena), Ibon Segu (Jaimeren laguntzaile izango dena), Santos Aguirre, Iñigo Garmendia, Rogelio Perez, Joseba Portularrume, Haritz Zubiaur, Pello Pitkabea eta Ibon Irazusta.

Mikel Santamaria, orain arte jubeniletan entrenatzaile izan dena masajista izango da hemendik aurrera.

Bestalde, alpagarri da Jose Marti Alguacil Anorgara joan dela jokatzera eta Juan Ramon Llavori Zumaiako taldera joan dela.



Argazkian,
Errusta eta
Koasta
tabernek
antolatutako
Iohemongo
frontenis
txapelketako
finalistak,
Ezkerretik
eskulinera,
zutik, Asier
Urdangarin
eta Eugenio
Aranburu;
makurtuta,
Mikel Mari
Berasaluze
eta Javier
Gimeno.

Urdangarin eta Berasaluzek irabazi dute frontenis txapelketa

Mikel Mari Berasaluze eta Asier Urdangartiek irabazi zuten Errusta eta Koasta tabernek aurtenago abuztuan lehen aldiutxapelketa frontenis txapelketa. Abuztuaren 9an hasi eta 31an bukatu zen estraineko edizioa, eta finalean Asier Urdangarin eta Mikel Marti Berasaluzek Eugenio Aranburu eta Javier Gimeno menperatu zituzten. Txapelketa guztian zehar oso giro ona izan da eta guztia borobiltzeko, finalen ostean partehartzaile guztiek baxkarta egin zuten Xega jaiztxean.

Guztira hogei bikotek parte hartu dute txapelketan: Xega-Torrotxo, Iñigo-Xabi, Urdangarin-Berasaluze, Ibi-Juan Ramon, Pastelero-Ibat, Baxenborro, Pana analak, Joxelo-Iñigo, Genoba-Alberdi, Xabi-Pello, Txurruko-Oltzu, Pastor-Casallo, Rubio-Iparra, Juanma-Jon, Fede-Kartu, Ricardo-Ibarbia, Arostegi analak, Arkaitz-Uranga, Silva-Narciso, Erkizia analak. Partiduak herriko frontoian jokatu dituzte, raketarekin eta fronteniseko pelota bereziarekin.

Nestor Gozategi ITURGINTZA



907-224100

LAIARI

izozkiak

Eusko Gaia, 42 Telefonoa: 13 42 64

LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

Ortu, Kuita 5 Tfnoa: 83 10 90
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 13 17 43

ALUYOLA, S.L.

LEHOAK, ATEAK, TERRAZAK,
BAINU MANPARAK.

P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Apiruz Harreta

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefonoa: 36 22 77



Argazkian
bera dela
nabaritzen
ez bada ere,
Mikel Agoto
ikus daiteke
Orioko
olatuen
gainean.
Mikel gogor
entrenatzten
ari da
neguan
Ballantine's
zirkuitoan
parte
hartzeko.

Oriogi garaile gazteen futbito txapelketan

Oriogi taldeak irahazi
yuen irailean jokatu-
tako gazteen futbito-
txapelketa. Finalean
sei eta hortz irahazi
zion Juancho Harate-
gia taldeari. Gazteen
mailan 15 eta 20 urte
bitarteko lagunet
osatutako sei taldek
parte hartu zuten.
Txikien mailan, berriz,
(10 eta 14 urte
bitarteko gazteak)
Gabon tabernak Blink
tabernari irahazi zion
finalean. Guztira
bederatzti taldek parte
hartu zuten txikien
mailan.

Bi oriotar junioren Munduko Arraun Txapelketan

Eder Etxeberria eta
Jian Redondok parte
hartu zuten abuztua
ren bigarren astean.
Belgikan jokatu ziren
junior mailako
Munduko Arraun
Txapelketan. Biak
laiko scullean aritu
ziren eta finalean
sartzea lortu zuten.

Mikel Agotek Munduko Surf Txapelketan parte hartu du

Mikel Agotek pasa den irailaren 3tik 7ra Zarau-
tzen jokatu zen Munduko Surf Txapelketaren pro-
ban parte hartu zuen. Munduko Surf Txapelke-
tako probetan edozeinek parte har badetzake ere
(irekiak izaten dira), izena ematea oso garestia da
eta Mikel Pukas surf dendaren dirulaguntzari
eskera izan zen munduko surflari omenen ondoan
Euskal Herria ordezkatzen.

Txapelketari ilusio handiz ekin bazion ere. Ie-
nenengo kanporaketan utzi behar izan zuen. Hego
Afrikako eta gogoratzan ez den beste herrialde
bateko surflari batek kanporatu baitzuten. Mike-
lek dionez, "haiek nire aldean oso onak dira eta
nahi duten guztia egiten dute oholaren eta olatuen

galdean". Lehenengo saloen kanporatu arren, es-
perimentzia "oso ona" izan dela dio eta errepikatzeko
gogoa du.

Orain arte herrian egin diren bi surf txapelkete-
tako irabazleak gogoratzentzen ari da, Ballantine's
zirkuitoan parte hartzeko asmoa baitu neguan.
Zirkuito horretako lehen proba urriaren 4tik 5era
izango da Coruñan eta bigarrena 25etik 26ra
Sopelan. Mikelek zirkuitoko proba guztietan parte
hartu nahi du, batina proba batzuk urrun jokatzen
direnez, altortzen du zaila izango dela guztietan
parte hartzea. Oraingoz Zamuzko lagun batzuren
erantzunaren zain dago Coruñara joango den ala
ez jakiteko.

KELER
GURE HERRIKO GARAGARDOA

Iñaki Garate
Aseguru-agentea

C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3. Telefonoa: 13 46 07



HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 83 47 04
FAX: 13 09 38

“Helburuak piskanaka jarri behar dituzu”

Eder Etxeberriak 17 urte ditu eta dagoeneko izugarrizko palmaresa du. Nahiz eta herriak gehiegiz ez duen goralpatzen bere lana, ez dio garrantzi gehiegirik ematen horri, eta urtero arraunean jarraitzeko gogo eta arrazoi gehiago ditu. Hala ere, gustatuko litzaiok neskek gehiago parte hartzea arraunean.

Noiz eta nola sartu zinen arraun munduan?

92. urteko denboraldian hasi nintzen. Nire osaba Korta Oriora etorri zen, eta etxearen arraun kontuak besterik entzuten ez zirenez, ba saltza hori zer zen probatzea pentsatu nuen.

Mundu honetan sartzean, helbururik ba al zenuen:

Garai hartan, Euskadiko txapelketa irabaztea izugarrizko desafioa zen guretzat, beraz hori irabazten salatu nintzen. Aurrerago, nire egoera ikusita, Espainiako txapelketari abatz nezakeela ikusi nuen. Egia esanda, helburuak ez dituzu jartzen hasieran, pixkanaka baizik. Indarren arbera.

Azkenik ikusi nuen lana gogor egin ezkerro junior mailako mundialera iritsa baneukala eta horretara ere heldu naiz.

Zein modalitatetan egiten duzu arraun eta nor izan zenuen

entrenatzale hasieran!

Orion skifean aritzen naiz, eta gero selekziorekin lauko skullean egiten dut arraun. Iban Uribea izan zen nire aurreneko entrenatzalea.

Zein dira orain arte irabazi dituzun tituluak?

1993. urteko hasiera gaur arte, Euskadiko txapelketa guztietan irabazi ditut. Gero estatu mailan, hiru urteetan lehen postuan geratu naiz eta besteetan bigarren.

Horretaz gain, Euskadiko selekziorekin, *Copa Pirineo* izeneko txapelketan ere zenbait sari irabazi ditut.

Aurtengo udan Mundialean parte hartu omen duzu.

Bueno, urtean zehar Espainiako selekziorekin konzentrazio batuetan egon naiz, eta Espainiako txapelketa bukatu ondoren, frogabatzuk egin nituen. Hauk ondo ateraz ziren eta beste hiru neskekin batera, lauko skullean

jardun naiz. Gainera, emaitza onak izan genuen, finalera heldu baikinen.

Nola bizi da herrian zure lana?

Traineru kontuetan dena dakite, baita mohibekoa ez dute gehiegiz jarraitzen. Askoek ez gitzutze ezagutzen, eta gainera jendeart ez zait importa gure lana; familia eta lagunak kenduta, jakina. Beharbada, neska izateak batzu zerikusirik, baita esan behar da bote motxetan dabiltsan batzukere bidaudela eta inork ez dituela aipatzen.

Ondo iruditzen al zaiztu horit

Nik normaltzat ikus-ten dut jendearen

erreakzio hori, kirola horrelakoa da eta jendeak tradizio gehiena duenera jotzen du. Orioko arraunlariak —traineruak ibiltzen direnak— heroek dira herriarentzat, eta horiek merezitako errezipibimetsua izaten dute. Niri hori zuzena iruditzen zail, aspaldiko tradizio bat delako.

Traineru denboraldian gure Kontrario, Tiran eta gipuzkoarrak izaten diren bezala, zein izaten dira zure mailan?

Euskadik, Koxtape eta Santurtzi; Espainian, berriz, denetik piska bat zegon; eta mundialean, ostera, Alemania eta Suitza oso onak ziren.

Eta ribalidade handia al dago?

Ez zait iruditzen. Guk estropa bukatu ondoren denok elkartu eta komentatu egiten dugu haserretu gabe. Azken finean ribalidade hori diruak eta apustuak sortzen dute, eta gure mailan ez da horrelakorik gertatzen.

Hurrengo urtean jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Behin maila batera heltzen zarenan, zenbait gauza probatzen dituzu, eta oso zaila da guzti hori uztea; aldeantziz, gogo gehiago ematen ditzu.

Gainera, mundial hometan parte hartzeak asko motibatu nau arraunean jarraitzeko.



Aldaketa garaia kanpinean

Jeneralean hartuta, aurtengo sida joan den urtekoa baino zerbait okerragoa izan da udal kanpinarentzat. Inoiz baino argiago gelditu da eguraldiak kanpinean duen eragina; beti izaten da horrela, baina, aurten, nabarmen-nabarmena izan da.

Aste Santuan eta udaberri osoan oso ondo egin dugu lana, baina ekainaren amainera eta uztaila benetan kaskarrak izan dira. Uztailean eguraldi txarrari egoera politiko larria gehitu zitzaiionean, ostalaritzan lan egiten duten pertsona ugari benetan ezkor azaldu ziren, aurrentzean turismoaren jaitsiera nabarmena izango zela esanez. Eskerrak kanpina ia abuztu osoan beteta egin den, uztailko emaitza txarrak asko itxuratz!

Irailean, berri, eguraldiaren gorabeherak baino garrantzi handiagoa hartu duen beste zerbait gerlatu da; hondartzako lanen hastiera. Beste ezeren aurrelik esan dezadan ondo iruditzen zaidala hondarzia txukundu, berritu eta male-



IDOIA SAN SEBASTIAN
Kanpineko zuzendaria

kola egitea; hala ere, bidaude garbi ikus-ten ez ditudan edota ados ez nagoen hainbat puntu ere.

Alde batetik, kanpinak uda garaien herriarentzat eskaintzen dituen lanpostuak eta urtero udalari ematen dizkion diru sarrerak kontuan hartuta, nahiko zalla egiten da ulertzea nolatzen geratuko

den kanpina horren txikia (oraingoaren erdia), hondartzan proiektatutako langutzak egiten direnean.

Bestalde, aurreneko fase horietan kanpinak galdu egingo ditu temiseko pista, bi squashak, haurren jolastokia eta 40 bat partzela. Partzela horietan ikarabana eta mobil-home-ak barne) 18 familia zeuden eta berekin kontaktu gabe egin diru gauzak. Udaletxeen galdeko dugun guztietan lanak noiz hasiko ziren, erantzuna izan da garaz jakinaraziko zutela kampistik leku aldatzeko nahiko denbora izan ze-zaten. Hala ere, azkenean, astebetean egin behar izan dira aldaketa guztiek. Bigarren fasean kanpinari zati handia-goa kenduko zaionez, espero dut denboraz lasaiago ibiltzea, orduan ez baitira izango leku aldaketak bakarrak; orduan, urte osoan egoten den jende askok joan egin beharko du kampinetik.

Azkenik, espero dezagun hondartza inguruko lan eta aldaketa hauek guztiek herriaren onerako izan daitezela.

Kaixo edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tfnoa: 13 07 73

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko rasio bereziak

13 30 14



Balearen kalea, 2 Tfnoa: 83 38 04

ZUMINTZA

- Ileapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

IRADI

AHOLKULARITZA



Aita Lertxundi, 33 Telefax: 13 46 96



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70



Argentina eta
Espainiako
ordezkariek
dominak jaso
ondoren.

Eli Lasa Munduko Trinkete txapelketan

■ Baionako Trinkete berrian jokatu berri da txapelketa

Maider Mendizabal anoetarra, Susana Muneta Lizarrakoa eta Maite Ruiz Eulatekoarekin batera Espainiako ordezkariekin izan da Eli Lasa aiaira Balonan jokatu den trinketeko I. Munduko Kopa txapelketan. Ez zitzazkien gauzak oso galzki atera semifinala arte. Semifinalako partidua, ordea, tantu bakar batez galdu zuten eta, horrela finalean izateko aukera galdu zuten, Argentinaren aurka jokatutako partiduan.

BRONTZEZKO DOMINA

Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko egindako partidua Uruguayen aurka jokatu zuten; partidu horretan brontzezko domina zegoen jokoan eta, beraz, podiuma. Maider eta Elik 30-18 irabazi zuten partidua. Finala

Frantziak irabazi zuen, Argentinari 30-29 irabazi ondoren. Horrelako esperientzia aberasgarria eta pozgarria izan dela esan digu Elik; toki askotatik etorritako jendea ezagutu dute eta harremanak ezin hobeak izan dira jokalarien artean.

GETRIAKO TXAPELKETA

Mundialak izan gabe ere izan da hainbat txapelketa herriko festetan. Esate baterako, Mikel Angel Eizmendi aiaarrak eta Jose Inazio Alorrasagasti oriotarrak osatutako bikoteak Getariako jaletan jokatu zuen pala txapelketa eta, gainera, irabazi egin zuten. Finalean, 30-24 irabazi zioten Zumalako bikoteari.

Zabalik dago izena emateko epea idi probatan parte hartzeko

Aiako Udalak antolatuta, azaroaren 2 eta 3an izango dira idi probak. Baino, parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute urrian — hilabete osoa duzue horretarako — Udaletxean. Partehartzaleen arteko zozketa azaroaren 1ean egingo da Udaletxean, eguerdi 12etan. Lehen hamabieiek sari importanteak jasoko dituzte, baina lehiakide guztiek 30.000 pezetako saria jasoko dute gutxienez; baldin eta hogei eta hamar plaza osatzen badituzte.

Aristerrazuko erromeria berehala hasiko da

Aristerraztu jatetxeeko jakinarazi dugutenez, berriz ere prest daude erromeria antolatzeari ekiteko, hainbat urtetan egin duten bezala. Seguruenik, lehenengo igandea uda ostean urriaren 26an izango da. Dakizunetan, aukera aproposa izaten da trikiti talde berriek lehen jendearteko saioak egiteko eta, bestalde, jendea desiratzen egoten da halako zuzeneko musika saioetara joateko eta bertan dantz egiteko. Beraz, trikitilarri gazte askok aukera izango dute Aristerrazun plazaratzeko beren trebetasuna.

Autoak aukera
onean
AIA ORIO
Telefonoo: 13 04 38

ITURAIN
estankoa
Aritzaga Plaza 13 44 73

LIZASO
ALTZARIAK
Eusko Gudari.46 83 07 84

PELLO PAGADIZABAL:

‘Artzain txakurren txapelketen maila izugarri hobetu da’

Aurtengo herriko jaietako egitarauaren barruan artzain txakurren Gipuzkoako kanporaketa izan zen. Jende asko bildu zen. Giroa aparta zen eta poza handia herritar bat nagusitu zenean: Pello Pagadizabal, Salbardin baserrikoa, ‘Xarbo’ bere txakur pintoarekin.

Eli Lasa

Nola hasi zinen horerat?
 Ilobek askotan esaten zidaten animatzeko, hainaz ikuskizunetarara joaten nintzenean lan zaila iruditzen zitzaidan eta atzera egiten nuen. Gero, piskatnaka txakurra probatzen hasi nintzen eta uste baino hobeto nentilena. Animatzen hasi nintzen, ingurukoek ere animatzen ninduten eta azkenean juradu lanetan ibiltzen ziren batzuk deitu zidaten esanez zergatik ez nintzen apuntatzen. Eta azkenean, iaz, horixe egin nuen Irunen, lehen aldiz. Egia esan egun hartako ardiak oso txarrak ziren, ez neki 'Xarbo', nire txakurra, nora bidali eta nondik hasi lanean. Uste nuen niri bakarrik gertatuko zitzaidala, baina beste artzainak ere berdin ibili ziren. Gainera, lekuak ez zen egokia ordekan zegoelako, eta han ardiek abiadura hartzen dute eta, txakurrari, berriz, bere denbora eman behar zaio. Aian daukagun lekuak askoz hobea da.

Aurten II. artzain txakurren txapelketaren kanporaketa

Izan da Aian eta zu izan zara irabazlea.

Bai, oso gustora geratu nintzen. Maila oso ona zegoen; adibidez, Euskadiko txapelduna han zegoen. Nire esperantza lau aurrenekoen artean sartzea zen, Mandubiako Gipuzkoako txapelketan sartzeko. Baina uste baino hobeto ibili nintzen; gainontzeakoak, berriz, espero baino okerrago, eta sekulako ilusioa egin zidan txapela irabazteak. Gero, Mandubian, ez nuen suertetik izan.

Azken txapelketetan ikusi dugun bezala, bertako txakur arraza bultzatu nahida, exita?

Bai, eta orain fama duena Borbea arraza da. Lehen hemen ile luzea edo tximosa deitutakoa ibiltzen zen eta orain, berriz, Corbeakoa: ile lisoa, motzagoa eta gorriska edo pintoa dena.

Pello Pagadizabal eta 'Xarbo', bere txakurra, pozik lehiaketaren ondoren.

Eta, zer iruditzen zaiztut?

Uste dut ondo dagoela bertako arraza bultzatza — dirulaguntzak dituzte eta premioak beraiei ematen zaizkie txapelketetan —, baina besteak posturik kendu gabe. Niretzat dagoen arrazarik onena Border Collie da. Orain dela bi edo hiru urte esan izan bazidaten kanpoko arraza bat hobea zela artzani txakur bezala, ez nuen sinestuko; baina, orain, horretan nabil, ikusten baitut hauek oso onak direla. Eta oso ondo iruditzen zait hemengo bultzatza, baina besteak baztertu gabe, batzuek nahi duten bezala. Gainera, ikusiko bagenu hemengo arrazak Border Collieak bezain onak direla, ondo legoke, baina Gipuzkoako osoan bi edo hiru txakur bakarrik egongo dira horien mailakoak. Eta jendea ez da txapelketara joaten kolorearekin pentsatzu,

baizik eta ahal den agerraldi politena ikustera. Elbarko Jose Antonio Arillaga, Mandubian, Gipuzkoako txapelketa irabazi du pintoarekin eta hemen, berriz, auren bertako arrazako txakur batekin, azkena geratu da. Zakur horiek oso maitekorak eta mimosoak dira. Hemengoie gauza bera lau edo bost aldiz esan behar zaie, pintoak, berriz, lehengoa-egiten dute. Gainera, bixiagoak eta azkarragoak dira. Txapelketa batean hemengoak irabazteko oso egun ona izan behar du eta besteak okerren bat egitea, bestela, oso zaila da.

Eta zer esaten diguzu zure txakurrari buruz?

1990. urtean ekarri nuen. Bederatzi edo hamar urte izango ditu. Asko paseatzen dut berarekin eta pazientzia behar da; zakurrak ezin dira





Pello Pagadizabal,
Salbardin baserriko,
bere 'Xarbo' txakurrari
agindua ematen Alan
izandako artzain
txakurren Gipuzkoako
txapelketan.

gaizki tratatu, gogogan hartzen dutelako. Ez dut esaten inoiz, behar duten garaian gogor egin behar ez zaienik, baina bestela, ondo hitz egin eta ondo hartu. Eta horri berek ere azkar antzematen diote. Eta gure txakurrik hor nonbait, baina lehen esandako pinto horiek kontuz tratatu behar dira; behin ikasi eta gero makilka da bat jaso dezakete gaizki eginez gero, baina harik eta ikasi arte, argi makilarekin, bestela ikaratu egiten dira eta kosta egiten da bere

onera ekartzen. Nik orain hamar edo hamika hilabeteko txakurra daukat eta ez diot inoiz makilkada bat eman; gehienez, ipurdiko bat eskuarekin. Eta, gainera, mimo ugari, Datorren urterako hau prestatzeko asmoa neukan,

Xarbo zahartzen ari delako. Baino ikusi egin beharko dugu, hora pintoa delako, eta legea dagoen bezala ez luke txapelketan parte hartzerik izango. Baino txakur horiek lanean ikustea gozamena da; Mandubian, adibidez, bi lehenengoak

pintoak ziren eta beren lana ikusgarria izan zen.

Azken urte hauetan agerraldia eta txapelketak ugari egin dira.

Bai, eta maila ere bai. Nik dudan txakur horiekin, adibidez, orain dela urte batzuk txapela ugari irabazteko aukera izango nuen, baina ordutik hona kristoren indarra hartu du eta jendes orduan ez bezala prestatzera da. Orain ahal den ondoen joan arren, deskuido txiki bat nahikoa da galtzeko.

NIK USTE DUT ONDO DAGOELA
HEMENGO ARRAZA BULTZATZEA;
BAINA BESTEAK BAZTERTU GABE,
BATZUEK NAHI DUTEN BEZALA

ERROTA



Ubegun bidean. ☎ 83 54 65

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak
Bidalatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 Mugikorra: 909-40 12 34 / 909-43 32 24

ARISTERRAZU
Jatetxea

San Pedro ☎ 83 45 21

KANUA

Festak ospatzeko
kategoriko lekua

☎ 83 43 22



Erasun bigarrena aizkolari txapelketan

Irailaren 21ean Aiako probalekuau jokatu zen Gipuzkoako lehen mailako aizkolari txapelketa, 130 bat ikusleren aurrean.

Lau aizkolarietik kanaerdiko eta 60 ontzako launa enbor ebaki zituzten eta bi oinbiko. Lehen enborra Erasunek bota zuen, bigarrena batera bota zuten Erasunek eta Txapartegik, eta, hirugarrena, Peñagarikanok. Hortik aurrera jaun eta jabe izan zen Peñagarikano, 40 urteko txapelduna.

Horrela geratu zen sailkapena: Lehera, Jose Miguel Peñagarikano, Beizamakoa, —27'14"—; bigarrena, Juan Manuel Erasun, alarra, —32'36"—; hirugarrena, Luis Mari Txapartegi, zestoarra, —33'33"—; eta, laugarrena, Jabi Aranbarri, zumarragarra, —33'36"—.

BERRI LABURRAK

ARDI GAZTA ONA HERRIAN

Legazpin izan zen Gipuzkoako ardi-gazta egileen txapelketan 57 gazta aurkeztu ziren, eta horietatik lehenengo hamarren artean geratu zen Agerburu baserrikiko José Luis Odriozola. Beraz, Euskadiko txapelketan Gipuzkoako ordezkari gisa aurkeztuko da alarra.

IKASTURTEAREKIN BATERA IKASTROAK

Kurtsó berriarekin batera eskolara

joateko hain gazteak ez diren ere aukera izango dute gauza bitxiak egiteko. Batetik, eskulanak, urria eta abendura bitartean, astearte eta ostegunetan arratsaldez. Eta, bestetik, gimnasia klaseak, hasi berriak badira ere, oraindik garaiz zabilta izena emateko: aerobic, 3. adinerako gimnasia, gimbazz, judo, muskulazio gela eta sauna erabiltzeko ere aukera izango duzue.

A LTXERRI

Jatetxea

Telefonia: 83 07 62

Benta Berri

Eguneroko menuak

Aitzpea, 14 Tfnoa: 83 42 75

Ernioko jaiak

Aurten ere irailarekin batera Ernioko jaiak ospatu genituen, aspalditik datorren ohitura.

Zaharrek diotenez, lehen orain baino ohitura gehiago zuten jendeak, baina oraindik ere askok ospatzentzu jaiak. Lehen, bakoitz, trikitilarinen bat hartu eta oinez irteitetzen bere tokitik. Egun pasaren ondoren, berriz ere oinez itzultzen ziren. Arratsaldean, Iturriotz eta Muatzen egundoko erromeria egiten omen ziren. Orain aldiz, kotxea hartu eta etxera bueltatzentzu gara. Arratsalde partean egiten ziren erromeria bukatu dira. Orain jendeak Ostiral santuz joateko gerta gehiago du.

Aurten abuztuko azken bi egunetan ospakizun bereziak izan ziren, berrogei eta hamar urte bete baitira gurutzea egun zutenetik. Gurutzea txukundu berria dute eta beherago, eroria zegoen txabola zutitu dute, berriz ere zortzi herriren artean, orain berrogei eta hamar urte bezala. Orduan idi eta abereen laguntzarekin jaso omen zuten materiala. Orain, helikopteroz: erosoa go, baina kostata, hala ere.

Abuztuaren 30ean Zelatunen egin zen egun pusan, orduan gurutzea eraiki zutenei omendakia eginez orroigarri bana eman zitzailean eta hurrengo egunean, egindako lanen inaugurazioa izan zen. Gurutzean emandako mezaren ondoren, txabola berrituaren ondoan lizar-landare bat aldatu zen. Gero, Zelatunen egundoko erromeria topatu genuen: trikitilar, bertsolari eta kirolak. Egun osoan eguraldia ere lagun izan genuen, nahiz eta iluntzerako txartu. Orain, Erniocaldea txukundu da. Puska baterako jarrai dezala bisitatzeako ohiturak eta, premia duenean, konpontzeoak ere bai.

Martin Rezabal 'Olaso'

SEGA

ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa



JAUN ETA JABE

*Irudiaren laguntzaz eta denok gordetzeko gustora hartzen ditugulako batez ere,
estropadaren gainean bost orrialdeko erreportajea osatzea erabaki dugu.
Argazkiekin batera denboraldiko gauzarik aipagarrienak, datu bitxiak,
elkarritzketak... aurkituko dituzue hemen.*

KARKARA TALDEA


Nagusitasuna erakutsi du Oriok denboraldi osoan, markak hausteko izango zena, dudarik gabe, zenbait oztoporengatik izan ez balitz. Gusto gozo-mikatza utzi digu eta tentsio handikoa izan da.



Balizetan bere ondoan aterata, ez dio inork irabazi. San Pedrok bakarrik aurrea hartu dio bi aldiz eta erlojuaren kontrakoetan izan da bietan.



Etsairik handiena Tirán izango zela uste zen baina, azkenean, ez da oriolarren mailara iritsi.



Inork ez du zaintzan jarriko oriolarrek erakutsitako nagusitasuna aurtengo denboraldian. Hasiera-hasieratik ibili dira fin eta indartsu gure arrauniria.

Goiko argazkia eta hemen ondoko, Zarauzko Ikerriñake bigarren egunean atera genituen.

Saina ex zaigu falta izan amorratzeko aitzakiarik. Jokatu diren estropada guztietan, batzuek edo besteengatik, sortu dira iskanbila eta tirabirak eta, gehienetan, Orio izan da kaltetu nagusia.



Argazkian duzue Kortaren keinua BBK bandera-ren bigarren egunean, estropada bertan behera geratu zelako haserrea erakutsiaz.

Ez zen hau lehendabizikoa izan: Gipuzkoako Txapelkotako estropada anulatu egin zuten epaileek eta nahiz-eta Oriok irabazi, bandera San Pedrok eraman zuen azkenean. Zarauzko Ikerriñean, Txikik egindako maniobra txar batek Bandera gaitzea okarri zuen eta, aipatutako BBKko banderan, Kalkuren protestak baliorik gabe utzi zituen bai aurreko egunean egindako errekorra, baita bandera eta saria bera ere.

Azkenekoa doping-kontroleko positiboarena izan da. Ardura norena den gai alde batera utxita, lotsagarria iruditzen zaigu guxti honen gorabeherak nota oraman diren. Informazioa zuzen eman ordez, batzuek nahikoago izan dute bazter guztiak nahastu.



Nahiz eta esponsorrik gabe ibili traineru berria erosteko Aginagako enpresa batek dirua jarri zuen eta Guillermo Cuestari erosi zitzzion. Iritsi zenean, oso aurreratuta zegoen estropada garala eta ez zen aukerarik izan ondo jartzeko berri hau.

Konfiantza osoa dute untzi honekin eta, azken estropada bukatu eta gero, egun batzutan jarraitu egingo dute onsaloezin trainerua puntu-puntuaren jarri arte.

Publizitate asuntoa ez da batore erraza izan aurten. Hondartzal horrek duda eta, batzuetan, harridura ere sortu du jende artean.

Argazkian, traineru berria Orion jokatu zen DV Sarian.



Bi untzi ibili dira besteen gainetik. Hasieran Orio eta Koxtape izan ziren nagusi, gero, Orio eta San Pedro eta, Kontxako egunak iritsi zirenean, Orio eta Donibane. Preparazio aldaketa, beste gauza batzuen artean, izan da denboraldi osoa sasoi onean mantentzearen arrazoia.

Dudarik gabe, zaletuak izan dira gauza ederretako bat. Ez dute hutsik egin.

Estropada guztietan kolore horia nagusi izan da eta gogo biziz lagundu dio Orioko herriak bere estropalarici.

Jendez gainozka egon ziren plaza eta honen inguruak Kontxako Bandera astindu zenean Udaletxeko balkoian.



Ba al dakizu?

• 1901. urtetik gaurdaino Kontxako 28 bandera irabazi ditu Oriok. Urte horietan 7an bukatutako urtean irabazitakonik ez zegoela? Aurtengoak bete du zulo hori: **0an** bukatutako urtean irabazitakoak—1910, 1940, 1970—; **1an**—1901, 1951, 1971—; **2an**—1942, 1952, 1972, 1992—; **3an**—1923, 1933, 1853, 1983—; **4an**—1934, 1944, 1964, 1974—; **5an**—1925, 1955, 1975—; **6an**—1916, 1966—; **7an**—1997—; **8an**—1958—; **9an**—1909, 1919, 1939—. Bistan dagoenez, 2an, 3an eta 4an bukatutako urteak izan dira oparoenak, eta eskasenak 8a eta 7a. Ea datorrean gehiago osatzen ditugun.

• Real Madrid futbol taldeak 27 Liga irabazi baditu ere, aurten Oriok aurrea hartu diola 28. bandera honekin.

• Orioko traineruan ustez baino askoz jende gehiago ibiltzen dela? Adi bestela: Brankan **Karmengo Ama** doa, Irudi haundi batean barrutik eta, kanpotik bi **san Nikolas**) daramatza. Traineru barnuan, bemz, eta brankaldean, **Paduako san Antonio** medalla batean, bestean, **san Kristobal** eta **Santo Kristo**,

eta, hirugarren batean, **san Inazio Loiolakoa**. Popan, bestalde, bemz ere Karmengo Arma azaltzen zaigu beste irudi batean eta Paduako san Antonio ere errepikatzen zaigu tostatik zintzilik dagoen medallan. Gainontzeko tosta guztietan, Karmengo Amaren eskapularioak dabilta kilin-kolon. Batzutan sorta ederra, eta, bestetan, banaka, bakoitzaren beharraren arabera. Gainera, Euskal Telebistako Irudiak ederk asko erakutsi zigutenez, Korta berak estanpa ederrak daramatza lepotik zintzilik. Eta, Kortarenak aginian badaude ere, jakin dugu Arraun Klubeko presidenteak ere soinean eramatzen dituela bereak izkutuan. **Nota Bene:** ez da ez san Juan ez san Pedrorentzat tokink traineru honetan.

• Jon Salsamendi mobileko mundialatik etorita traineruan sartu ez denez, bizikletan ibili da jo eta ke sasoi onean dago, nonbait eta Bermeoko estropada ikustera tximingaz joan zen. Sasoi ona du, baina suertea ez nonbait eta Oriotik Bermeora ondo iritsi eta gero, hango portuan sartzen ari zela automobil batek maniobra arraroa egin eta Jonek lurrean bukatu zuen. Ez al duzue ikusi beso bat eta belaun bat bendatuta?

Kolore horta izan zen aurten ere nagusi Donostiarra mailan. Kasik kolore bakarra eta hain trinko, kostata antzematen dela Donostia denik.



JABIER PUERTAS

Nik irabazita baino gehiago emozionatu nintzen semea Kontxako Bandera eskuartean zuela ikusita. Egia esan, hemezortzi urte inguru arraunean eman ditudan arren, ez dut sekula Kontxako Bandera irabazi, eta ikaragarria da semeak jokatutako bi banderetan biak irabaztea.

Diferentea da nerori txalupan edo semea izatea. Askoz gehiago sentitzen dut orain, semearentzat beti nahi baita onena. Semea etxera sartzen denean galderak edo kontseluak eskatu izan dizkit, eta nik beti gauza bera esaten diot: asko kontu egin behar duela bere burua, konstantea izan behar duela eta fin ibiltzeko. Nik badakit bera fina dela eta ez dut beldurrik.

Aurtengo Kontxako estropadetan oso nerbioso egon naiz eta azkenean, jakina, erabat emozionatuta, negar ere egin nuen.



IÑIGO ARRUTI

Bi banderak segidan irabazi ditut eta biak ilusio handia egin didate, baina bat, lehenengoak gehiago. 1995eko Kontxan guk genituen irabazteko guztiek eta ia dena irabazi genuen, baina ez Kontxakoa; beraz, iaz lortutakoak poza doblea eman zidan.

Batzutan gogorra egiten da lana eta arratuna batera eramatea. Neguan ez hainbeste, baina udan entrenamendua beti ordu berean egiten dugunez, laneko txandak aldatu behar izaten ditut eta hori ez da erraza izaten beti.

Egunen batean laga beharko dut, baina Kontxa irabazteak jarraitzeko gogoa ematen du, nahiz eta beste batean, egun txarra izanez gero, uztekotan ibili.



RAFA G. DE TXABARRI

Nik ez dut inoiz Kontxako Banderarik irabazi estropadan, gure aitak bat, harrek hiru ditu. Behin, Ohorezko txandako estropada irabazi nuen eta hura izugarria izan zen.

Zierbenan egoteak nik nahi baino traba gehiago jartzen dizkit entrenamenduak berta-bertatik jarraitzeko, batez ere azken estropada hauetan. Hala eta guztiz ere ia eguncero hitz egiten dut Kortarekin.

Aurten seguru nuen indartsuenak ginela. Ez nuen duda zipitzik ere horretan. Baina beti izaten dira ezbeharrok, iztripuak... jakin ezazu! Hori zen nire beldur bakarra eta estuasuna pasa nuen Koxtaperen zlabogako denbora gurea baino hobea zela ikustean. Bueltako etorrera benetan indartsua izan zen gurea.



PELLO ORBAÑANOS

Guztira hamaita egun pasa zituzten Tiráneko 25 estropalarick Oribarzarren. Joan den urtean bezain gustora ibili omen dira, baina tentsio piska gehiago sumatu dut nik aurten. Iza ere, iaz Kontxako estropada nolakoa zen probatzera etorri ziren, eta aurtengo helburua, berriz, erabat diferentea izan da: irabazteko asmoz etorri ziren.

Lehenengo igandeko estropada jokatu ondoren hamar minututan baxkaldu zuten, beren artean hitzik ere egin gabe, lur jota, eta segituan abiatu ziren. Hori da kirolaren aurpegi krudela.

Neronek prestatzen nituen menuak, hidratoak, proteinak... kontuan izanik eta gero, entrenadoreak eta biok, azken ikuituak egiten genituen.

Hemen gustora egon ziren, dena dela.



EUSKALDUN

berriak



Jabier Gaitón

Pasai Antxon jaio zen, gurasoak nafarrak ditu, lau anaietako zaharrena da —bere bizkiarekin batera— eta familiako euskaldun bakarra da; alegia, berak bakarrik daki euskeraz. Bera jaio zen ingurunean arrotza omen zen euskeraz.

Donostian magisteritza egiten ari zela hasi zen euskeraz ikasten, gusto ahartu zion eta ez zitzzion gehiegiz kostatu; hiru urtetan ikasi zuen oinarria. Magisteritza eskolan ezagutu zuen gaur egun emazte duena, M. Jesus G. de Txabarri. Oriora ezkondu ziren eta gaur egun hemen bizi dira bi semeekin. Lehengo familia erabat erdalduna zineak gaur egungoa zeharo euskalduna du.

Orion hainbat jendeak euskeraz egin zion hastenik, nahi orduan bera erdiurdiko euskalduna izan; hainbat esker errezoago ikasi zuen. Neurri batetan hainbat zor omen die euskalduntze prozesua borobildu izana, Pasaporte ona izan omen zuen euskeraz Orion sartzezu, eta espero baino errezagaz integratu zen herrian. Asko harritu omen zuen hemen multilek beren artean hilka egiteak. Gerora berak ere ederki asko ikasi du.

Gaur egun Aiako eskolan ari da lanean maisu. Lehengo urtean, duela 12, ikaragarri ikasi omen zuen ikasleengandik. Aiako neska-mutikoengandik, euskeraz landu eta aberasteko balio izan omen zion. Ordurako bihotza horia zien Jabier gure artean izan genuen KARKARA sortu zenezan.

Aldizkariak idazten trebatzeko baldio izan zion. Esan digunez, *Gaur egun, ez dago aitzakiarik euskeraz ikasteko, eta Orion ezinbestekoa da; pertsona batetik ezin du ulertu Euskal Herria bere osotasuan euskerarik gabe.*



ZINE KRITIKA

Garailea ez da txapelduna izan

Donostialako 45. Zinemaldiak bere helburuak bete ditu; batetik, amaiera eman dio azken edizioetako kritikaren eta epaileen arteko iritzi kontrajarririk; eta, bestetik, dena exohiko normaltasun giroan izan da. Filme ugari ikusteko aukera izan dugu, sari pila bat banatu da, zineak Donostialoko urteroko bultzadatxo hori jaso du, eta ia guzti itxurso suertatu da.

Gehienok komunikabideen bitarte jarraitu dugu zinemaldia. Zine zurrumbilo horretaz kampo geratu gara, eta komunikabideek —gagan Claude Chabrolen ilmea dastatzeko gogea piztu beharrean— arretarik merezil ez duten ergelkeria askoren berri eman dute. Gloriourra bilatzen dute eta aurten ez da horrelakorik izan; ez, behintzat, nahi aditsa.

Izar gutxi hurbildu da aurten Donostiara: Jeremy Irons, Julie Christie, Michael Douglas eta Willem Dafoe; bost besterik ez. Lehenengosaren *Lolita* ez zuen txalorik jaso, bigarrenak saria trabazi du bere interpretazioagatik, eta hirugarrena ez dut uste gehiago etorrako denik. Douglasenak ikustekoa izan zen; Concha Velascoak (!) aurkeztu zuen; Rossy de Palmaak (!!) eman zion saria; eta, hori gutxi halitz, ikusi al zenuten Douglas junior euskar txapelaren azpian nora begiratu ez zekiela?

Zinemaldia Donostian dela-eta, euskar kutsu minimo bat gordetzearen, noizean behin egun-onen bat esaten zen: Chabrol, euskar sukaldaritzaz ezaguetzeko. Arzakenera eraman zuten; baina Douglas txapela jarri zionak —zur euskaldunen bat izan zela, mendekua hartu nahian— haren karrerarekin amaitu zuen. To, euskar gloriourra!

Txantxak aparte, zinemaldi hometan euskaraz filmatutako laburmetraje bat ikusi ahal izan da, eta aurkeztutako filmeen maila, izugarria izan gabe, duina izan da. Hiru filme nabarmenduko nituzke: *Rien ne va plus*, *Hombres armados*, eta *Martin (Hache)*.

Bestalde, uste dut ez duela zentzu gehiegirik filmeek beren artean norge-hiengoka artzeak. Bistan da espektakulua bilatzen dela, artea baino gehiago; azken batetan, publizitatea eta dirua dira zinemaldiak.

Donostialako 45. Zinemaldi hau gogoratzearan Michael Douglasen oroltoku naiz, eta hark irakatsitakoaz. Hau da: garailea ez dela beti txapelduna izaten.

ÍñIGO FERNANDEZ

ARKAIZPE

*Baserriei eman diegur
gainbegiratua atzean
utzita herriko elkarte
gastronomikoet helduko
diegu. Lehenengo, Arkaiz-
pen izan gara, hau baita
herriko zaharrena. Ariza-
ga kaleko 7.eko sotoan
dago kokatua, Iturain
liburudenda ondoko
eskilarak igota, karkara-
txoaren bukaeran.*

Iñaki

Arkaizpek 75 bazkide ditu. Bakoltzak 11.000 PTAko kuita ordaintzen du urtean. Zuzendaritza-batzordea 9 lagunek osatzen dute eta urtero aldatzen da, urtarrila bukaerako batzarrean. Batzordeko presidente eta presidenteorde diren Florentino Arrizabalaga eta Patxi Xolbardiak izan nintzen abuztuan, elkarteaz ezagutzen joanda. Afari-meriendara Jesus Mari Atorra sagasti ere bildu zen, soziork berrienetakoas da eta bere bidez jakin nuen kide berria egiteko 120.000 PTA ordaindu behar dela. Afaria moldatzenten zuten bitartean bakoitzen sukaldari trebetasunez jardun ziren, umore onean, elkarri adarra jotzen; angulak, perretxikoak... jaki goxo askoak etorri ziren hizpidera, arraultzak eta txistorra prejitzten zituzten bitartean.

Haien jaten ari ginea begiratua eman nion soziedadeari: leku apaina eta txukunda da. Edaria freskatzeko txoko polita dute, arkaizpean egina. Dekorazioa bariatu da, hainbat quadro daude: elkarrearen sortzaileena plazar;

balearena, bertsoak eta guzti: Indurainenak bi, bat Arkaizpeko lagunentzako hitzekin: Imanolena beste bat, bertakoentzako hitzekin hau ere; beste bitan Euskal Herriaren armaria eta Oriorena, hau kanniak eta guzti. Bi irudi ere bai: San Nikolasena eta Domingo Mitxelenaren, trauneruko patroi handia izandakoarena. Bi kalendario, bat Orioko traumeruarekin. Eta, nola ez, telebistoa.

HISTORIA

Entzun ere gauza asko entzun nituen sagardo botilak hustutzen ziren bitartean: Soziedadea 1953ko apirilaren 26an sortu zen, 25 bazkiderekin. Sotoa errrentan hartu zuten. Lehenengo presidente Ramon Uranga izan zen, urte askotan alkate izandiakoa; Gerotzak presidente asko izan dira: Bartoli, Gabriel Karpentario, Ptxerrikonde, Manuel Biraola, Osa, Iñigo Manzisidor... Sotoa 1973an erosi zuten, 180.000 pezetan. Orain dela hamar bat urte erreforma

handia egin zuten, mahaiak berritu, pareta pintatu, eta sagardoa gordetzelko bodega egokitu. Bodegatik bide hat omen dago elizako pareterano tristen dena; berrikuntza lanetan itxi egin zutena.

Lanetik jubilatzen diren bazkideak ohorezko egiten dira, kuota ordaintzeari utzi eta batzarretan bota emateko eskubidea galtzen dute. Bazkide berri familiako edozein gizon egin dezakete. Jubilatu zen batek bera soziedadean ordezkatu zezakeen gizonik ez zuela eta familiako emakume bat proposatu zuen batzarrean sozio egiteko, ezetz erantzun zitzaiot. Emakunak ezin dira bazkide izan. Hasieran sartzea ere galarazita zeukan. Geroago asteburuan sartzerik bazeukan. Gaur egun sartidea libre dute, edozein egun eta orduan, bazkide batekin joanez gero: baldintza batekin: ezin dute sukaldarlanik egin. Baino elkarteak duen langile bakarra emakumezkoa da, garbitzailea.

Urtero San Nikolas bezpe-

ran afaria izaten da baziak guztientzat. Elkartea sortu zen egunaren inguruau, apirilak 26, egun osoko eskursioa. Errioxa, Nafarroa edo Santander ingurura. Behin Laredon almejak babarrunekin jarri omen zizkieten hazkaltzke, eta denak seko harrituta geratu.

FLORENTINO KARTZELAN

Gogorarazien Errealak lehenengo liga irabazi eta Gernikako bombardaketa ere apirilaren 26 batean izan zirela. Florentinok gogoan du hori, bera egun horretan atxilotu haitzutzen 1970ean. Gernikan, bombardaketa salatzeko manifestaldi batera joanda.

Horiek denak kontatzerako hirugarren botilari astindua ematen ari ginen eta erabaki nuen sagardo ona zela eta galdeitu egin nien nongoa ote zen; Hernaniko Altzuetakoa omen da eta aurreko urtekoa izaten omen dute beti. Ardoa, berriz, Atxega eta Errasturen daukate, herriko bi ardogleena.



Arraun Elkartekoei

Bernizere sekulako poza eman digute herniko arraunlariek. KARKARA hau horren adierazle da eta denak zonondu nahi ditugu; ez bakarrik hemen ateratzen direnak, baita besteak adina lan egin eta izkutuan geratzén diren horiek ere.

Bejondeiela guzbiel.

zoriotxarrak

Estazioari su eman diotenei

Iraialaren 27an, goizaldean, ezezagun batzuek su eman zioten Eusko Trenbideak enpresaren Onoko estazioiko bulegoari. Kalteak handiak izan ziren eta kostata mantendu ziren jendearentzako zerbitzuak.

Garraio publikoa eta, batez ere, trenaren erabilpena bultzatu ohi dugu KARKARAn. Jende askok erabiltzen du eta ekintza hori herritarren kalterako da.

JAIOTAKOAK • HILDAKOAK • EZKONDUTAKOAK

ORION

Jalo

Isabel Kuperotxpi Frias, uztailaren 6an
Mikel Uranga Azkarate, uztailaren 8an
Andoni Garate Murgondo, uztailaren 11an
Iñaki Barjakoba Amlibia, abuztuaren 3an
Alvaro Azkue Tellea, abuztuaren 5ean
Aitor Lasaiza Irastorza, abuztuaren 25ean
Jaione Ibarra Mendi San Sebastian, irailaren 8an
Uxai Garate Libaka, irailaren 17an

Havier Etxeberria Iriondo, irailaren 18an
HII

M.Dolores Sarasua Bideanzeta, ekanaren 26an, 49 urte

Josefa Antonia Sarasua Gozategi, uztailaren 7an, 94 urte

Inazio Ibaruren Mendizabal, uztailaren 17an, 88 urte

Maribel Oilden Solaberrieta, uztailaren 27an, 53 urte

Pilar Iturain Aranguren, abuztuaren 2an, 87 urte

Jose Manuel Atorrasagasti Zubillaga, abuztuaren 8an, 75 urte

Inazio Otaño Estala, abuztuaren 15ean, 85 urte

M.Karmen Alkorta Arruti, irailaren 2an, 57 urte

Karmen Oilden Orbegozo, irailaren 2an, 85 urte

Kreszentzio Gozategi Alzpuru, irailaren 25ean, 76 urte

Ezkondu

Xabier Euzagirre Sagardia eta Idia Urkizu Régidor, ekanaren 28an

Jose Javier Aramendi Euzagirre eta Manja Bvra Kalzada, ekanaren 28an

Xabier Sarasua Manibalar eta Ana Rosa Gonzalez Milla, uztailaren 19an

Koldo Azurmendi Sarasua eta Militza San Sebastian Sarasua, abuztuaren 2an

Domingo Lavisiera Narango eta Dolores Blanquez Rojas, abuztuaren 16an

Berencio Sanz Rietu eta Marijo Satrustegi Aldaz, abuztuaren 23an

Ramon Mari 'Amafu' Elizondo Erbil eta Itziar Romeral Txumukoa, irailaren 6an

Juan Mari Uribea Zuberia eta Begofia Vilchez Ibarra, irailaren 6an

Esteban Valero Lopez eta Yolanda Osa Manibalar, irailaren 13an

AIAN

Jalo

Maddi Aldai Lasa, abuztuaren 8an

Mikel Aldanondo Ibarra, abuztuaren 11an

HII

Josefa Emilia Orbegozo-Larrubide, abuztuaren 18an, 91 urte

Ezkondu

Jose Mari Jauregi Otamendi eta Lurdes Sarobe Lasarte, abuztuaren 14an

Luis Man Manterola Larrañaga eta Mari Jose Euzagirre Etxaide, irailaren 6an

Miguel Angel Santamaría Redondo eta Ana Isabel Zubimendi Zabalo, irailaren 13an



Jaione Ibarra Mendi San Sebastian irailaren 8an jalo zen, eta fotografian bere gurasoekin — Joakin eta Amaya — eta, tau urteko bere seme-alaba Ainhoarekin ikus dezakagu. Zorionak!

Zuek ere zuen seme-alaba jaiberriaren argazkia — edo ezkontzako — txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bialdurguzue eta jarriko dugu. KARKARAn buzoian utz dezakezue edo, bestela, taldekoren bat eman. Bat baino gehiago iristen bazaigu, lehenbizitzi alegatu zaigunak izango du lehentasuna.

Orain dela... .

25 urte

Iraiala estropada sasoia da eta 1972an, orain bezala, estropadak izan ziren mintzagalrik garrantzitsuena urte garai horretan.

Urte haletan orain baino estropada gutxiago izaten zen, eta hala ere Oriok denetan ez parte hartea erabaki zuen. Denboraldia hasti baino lehen lau arraunlarik istripu larria izan zuten, eta horren ondorioz besteak moral handirik gabe zeuden, gainera trainneruan lau horren falta nabarmena zen. Hala ere Kontxako Bandera irabazi egin zuten.

Lehenengo igandean (irailaren 3an) Oriok aurrenengo postua lortu zuen 21·33 denborarekin. Bigarren igandean, berriz, haize handia zela eta, estropada suspenditu egiri zen, eta hurrengo astekazkenean, hilak 13, egardiko hamabietan jokatu zen. Egun horretan Santanderrek irabazi zuen estropada eta Orio bigarren izan zen 21·20 denborarekin, Santanderren atzetik segundu batera, Bandera eta 200.000 PTA irabazi zuten. Kiniela asmatu zuen bakarrak, berriz, 144.206.

Espaniako txapelketa Donostian izan zen irailaren 16 eta 17an. Lehenengo egunean Oriok irabazi zuen eta bigarrenean Astillerok, eta hauek eraman zuten bandera. Denboraldiko azken estropada Bilboro izan zen, Nerbioiko Sari Nagusia, eta orduan ere Astillerok irabazi zuen. Orio hirugarren izan zen.

Arrauna alde batera utzita, beste kontua da 1972ko irailaren 21ean Zaraguetari egindako omenaldia. Egun horretan filosofo oriotarrari omenaldia egiteaz gain eskola publikoari inaugurazio ofiziala eman zitzaien. Don Bitorio parrokoak eskola bedeinkatu eta gero, D. Juan Zaraguetak eskolan kokatutako bere irudiko eskultura bat utzi zuen agerian, eta alkateak lapida bat. Orduan, omenaldira etorritako agintari batzuek (Gobernadore Zibila, Movimientoko burua...) Espaniako bandera igo zuten Espaniako himnoa entzuten zen bitartean. Gero, diskurtsoen garaiaren iritsi zen, eta bukatzekeko eskolako haur batzuek Zaraguetari plaka bat eman eta Agur Jaunak abestu zioten.

GURE TXOKO TABERNA

ARITZAGA KALEA



ORTZAIA JATETXEA

- * Bataioak * Despedidak
 - * Jaunartzeak * Ezkontzak
- Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

AMLIBIA taberna



- Gosariak
- Pintxoak
- Bokatik
- Kaxuetak
- Plater konkrutuak

Antzaga, 17
Tel.: 83 00 47
0610



MAKAZAGA Igeltsuritza

- ✓ Igeltsuritza orokorra, denetarik egiten dugu
- ✓ Presupuestoak eskatu konpromezurik gabe

Lan txukuna eta
merkea

83 59 00

Martinaren azken urtea Orion

Abuztuko eguerdi batean Orioko hondartzan nerbielen urtebeteko alabarekin. Bere umiatz baldarek putzuzulo batera enman ninduten, han bere adineko mutiko bat ze-goen, altarekin. Asko poztu nintzen, aspaldik ezagutzen dut gizona, baina er nuen inoiz berarekin hitz egin, eta aukena balatzera erabaki nuen. Martin du izena, inglesa da, berrogeita hamar bat urte izango ditu, piraguazale amorratua da eta urtero etortzen da udan. Oriona.

Bere semea eta nire alaba jolesten ziren bitartean jakin ahal izan nuen nola; etorri zen lehenengo aldiz gure herria lagun batek deitu omen zion telefonoz ebaxera, esanaz hem txiki eta polita deskubritu zuela, lasai eta basati samarra, eta joateko egin batzuk pasatzera, berak han ibxongo ziola. Bi egunetara han omen zen Martin. Hernan sartuta, sekulako jendetza eta automobil pila ikusi omen zuen, eta zeruan helikoptero bat bueltaka; eta pentsatu beste herrrien batera intsi ote zen. Baina bide-seinaleak garbi zioen: Orio, eta lagunak Orio esan zion telefonoz. Beraz, karpinaz galdueta eta aguro topatu zuen laguna, honek esan zion arratsaldean estropadi handi bat jokatzekotan zela hem txiki hartan. Orio, Oxford eta Cambridge, eta horrek ekain zituela herria jendeari automobilak eta helikopteroa; eta pasa zitzailon sustos. 1969. urteko aburtua zen, Geroztik urtero etorri omen da udan Oriona. Orain Alemaniako hegoaldean bizi da andrea eta bi seme alabeen, laku eta mendi edermez inguratutu, baina hala ere urtero sentitzen du Orionsko osasun bere baitan, bata zintzo bete ere. Bera izango da, noski, kanpoko gure udatziarrak fidelena.

Hori dena jakin zuenerako bi bolokoak adiskidetu ikusi nituen. Martinek, Getaria ikustea galera zuten zion espago erraldoian begira, zera esan zidau: "Beharbada hau izango da nire azken urtea Oriona etortzen". Pentsatu nuen bere bi bikiak izango zirela amazcoria, baina okei nengoengoa, honela jarraitu zuen berak: "Asko aldatu da Orio, zementzo gehiegikusten da leku denetan, orain itsasoan ere bai; Orioko hondartzia bezalakoak oso gutei izan dira orain arte, baina orain egin nahi dutena bezalakoak asko daude, norah".

Orduan alaba etorri eta esan zion ama zain zitela. Martin albatu, semea hartu eta euskeraz "gero arte" esanez joan egin zen. Pena handia hartu zuen lagun berrak joatearekin. Datorren urtean ezin egin ditugu ikusi, Martinek intzia aldatzen ez badu behintzat.

Iñaki Iturain

KANPOAN daudenak



Eleuteria Salsamendi Bengoetxea

Man-eta Tomas, 10-eta 8 urteko txilobei kamisetan horri erosten topatu genuen Eleuteria abuztu bukaeran. Eleuteria 65 urte ditu eta Frantzian bizi da. Landetako Grenade sur Adour herrian. Alargundu egin zen orain lau urte eta 38 urteko alaba eta 37ko semea ditu, Patricia eta Jean Pierre.

Eleuteria 1942an joan zen Oron, hamar urte zituela, ama eta anaia-arrebekin batera Larretako Capbretonera, sei urte lehenago frankistengandik hiriko sandako atarengana. Ezpiñanetan imifar goxoa zuela esan zezkigun gurasoen ezzerenak: Fenu aita eta Pujolto ama, Txononokud hau. Bi anaia eta ahizpa bat ditu. Capbretonen Salsamendi baten Anjel, lau matil dituen Ramonita eta Martin apaiza.

Orio asko maite badu ez gutxiago bere aita zena, Jose Manuel Salsamendi, Fenu. Izen ere bere buruaz ez zigun gaizka askonik esan, baina bere aitaren gainean ba, emozionatuta, eta euskeraz hamgam onean Euskal Herriko karpo bizitzen 55 urte daramazkin batentzat.

Asko nahi diot
Oriari eta urtero
etortzen gera, udaran
eta gabonetan
gutxienez, eta
Donostiko estropadak,
ahal badet
behintzat, ez ditut
galtzen.

Amantzaile, baserritarre eskoak emanen eta udaran hondartzan 'bañero' ibiltzen zen Ferruk 1936an aldegin zuen Orotik bapore batean lagun batekin Donibane Lohizunera. Hiruengo egunean agertu omen ziren frantsask bere bla Oron Capbretonen jaun zen bietzen. Hara ihes zhoazen euskaldunen laguntzen ibili zen, gure olio lepatista omorrua zuten. Handik urte gutxitara hasi zen bigarren munduko gerran Frantziako erresistentzian laguntzen artu zen burubelam, naziengandik ihes zetozten frantses muga pasatzen laguntzen.

Gerrabukatuta frantses agintanek Ferrutengana jo zuten, honek egindako larak ordaintzera. Homelaxe lortu zuten orduan kanpotarrentzat lortzen oso zaila omen zen hango nazionalitatea.

Eleuteriak esker ona bestenek ez du Frantziarentzat, gurekin oso ondo portatu zitau, oraindik gogoan dei alegatu bermuan neki eman zituten poltsa bat orriopaz berea, eta kartoon muñekoa bat zerogamoa, ez del sekulu ohi zu.

Hezkuntza eta/edo Orientazioa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera, Orientazio Departamendua ere martxan jarri zuen Orioko Herri Ikastola, 1996-97 ikasturtean.

Orioko Herri Ikastola

Oraindik denbora asko ez dela, ikaslearen buruan ezagutza sail bat pilatzea zen irakaskuntzaren egiteko. Ikaslearen eginkizuna, irakasleak transmititutako kontzeptu multzoa jaso eta oromeanean gordetzea zen. Egia esan, nahiko eginkizun pasiboa eta errepikatzalea aitzortzen zitzalon.

Pedagogiaren haize berriak gure arera heldu zirenetik, badakigu ikasleen subjektu aktiboa dela, hau da, ezagutzak eraiki edo berreraikti egiten dituela; eta lehendik dakiaren gainean eraikitzen edo berreraikitzen dituela, gainera. Horregatik, ezagutza horiek zimentarri sendoen gainean finkatu nahi badira, haurrak lehendik dakienean haurraren izena kontuan hartu behar dira. Irakaskuntza egoiki baterako, ez da nahikoan, beraz, irakasleak bere gaia ondo menderatzea; haurra ere ongi ezagutu behar du.

HEZKUNTZA OSOA

Bada gure ikastoletan beste berrikuntza bat ere, irakaskuntza hezkuntzarekin uztartzena ekarri duena; arlo ezberdinetan lantzen diren eduki-nei dagokien berrikuntza da. Eskola tradizionalean konzeptuzko edukinak irakasten

ziren, batez ere: gaur egun goan, kontzeptuak batera, prozedurak eta jarrerak ere lantzen dira. Alderdi teorikoarekin batera, prozedura praktikoak, eta jarrera nahiz balore positiboak ere irakasten dira. Berrikuntza hauek aldaketa nabarmenak ekarri dituzte hezkuntz praktikan.

Irakasleak kontuan eduki behar ditu haurraren tritziak, asmoak, interesak, pentimentzuak, sentimenduak, jarrerak eta balioak; horietatik abiatuz, irakatsi behar ditu arlo desberdinak edukinak. Eta edukin horiek ikaslearen alderdi guztiak bildu behar dituzte: adimenarena, psikomotorea, afektiboa, nortasunarena eta soziala.

ORIENTAZIOA

Irakaskuntza benetako heziketa izango da, ikaslea bere osotasunean hartzen badu. Eta heziketa orientazioa izango da, hezkuntz komuni-

tateak —guraso, irakasle, ikasle...— finkatutako helburuen lorkuntzak ezarri badio norabidea.

Hezkuntza guzta da, beraz, orientazio, eta irakasle guztiak egin behar dute tutoretza edo orientazioa; hala ere, jadanik indarrean dagoen Erreforma Legeak —LOGSEk—, indar berezia eman nahi izan dio tutoretza lan honi. Horregatik, tutoretzalari guzti hori sustatu asmoz. Orientazio Departamenduen sorerra beharredotzat jo du. Horrela, Erreformaren izpiritu eta legeari jarraituz, Orioko Ikastolan ere martxan jarri da Orientazio Departamendua.

FUNTZIOAK

Orientazio Departamendua funtzioak honako hauek dira:

- ✓ Irakasleen tutoretza lanaren garapen egekia sustatu; aholkuak eman, materiala prestatu, etab.

- ✓ Familia eta eskolaren arteko lankidetza bultzatu.

- ✓ Garapen indibidualeko programetan eskuhartu.

- ✓ Ikastetxeen eta lagunartearen ongi integratzen lagundi ikasleei, iraganaldietan batik bat: ikastetxera heltzean, ziklo batetik bestera, talde batetik bestera edo ikastetxe batetik bestera iraganean.

- ✓ Hezkuntza osaketa ezberdinaren aurrean, informazioa, aholkuak eta orientazioa eman ikasleei.

- ✓ Ikerketen buruzko erabakietan eskuhartu; ziklo batetik besterako iraganaldietan, hezkuntza erreforitzuak eman ala ez erabakitzeraoan etab.

- ✓ Garaiz detektatu ikasleen ikaskuntza problema posibileak, teknika psikopedagogikoen bidez gainditzen lagunduz.

- ✓ Hezkuntza proiektuan eskuhartu; integracio programa, erreforma, irakaslegoaren formakuntza, hezkuntza betrikuntzak, etab.





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

1958an Bilbon izandako estropadaren ondoren arraunlanek baxaria izan zuten Itziarren eta bertako elizaren aurrean ateratako fotografia dugu. **Kuadrillako zazpien izen-abizenak** asmatu behar dituzue.

Bigarren galderaz **Noiz sortu zen Arkaizpe soziedadea?**

Orain arte egin dugun bezala, afan bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Alaria: **Aizperro jatetxean** izango da.

Erantzunak, ea azken honetan baino gehiago iristen diren. **urriaren 20rako** bidali behar diziguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu lehiaketa. Hemiko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea jero Irastorza Lertxundi orietaria izan da.

Hau da eman zigun erantzuna: Pako Sarasua, Antonio Makazaga, Gabino Ezagure, Blas Urkzu-eta Juan Larrañaga.

Bigarren galderaren erantzuna hau zen: Amilbia, Benta eta Ibon Etxebema izan dira bajak aurtentzako trailleruan.

MIZPERRO

○ 83 54 19

**Jatetxea eta
nekazal turismoa**

.....Gure zaharren ahotik.....

Ramon Solaberrieta 'Erramolino' martxoaren 29an 93 urte bete zituen 1904an jaio baitzen. Orion gizasemelan zaharrenetako da. Bera baino zaharragoak Joxe Kutz Txota, 97 urtekoa, eta Inazio Txokolate Ramon baino bi hilabete zaharragoa. Aurtentz 74 urte betetzen dira bere lehendabiziko Kontxa irabazi zuenetik.



RAMON SOLABERRIETA
‘ERRAMOLINO’
93 urte

Nik zortzi aldiz jokatu nuen Kontxan. Aurrenengoa 23an, eta gero 25, 30, 31, 33, 34, 35 eta 39an. Cuarentan baporea egin eta ez nintzan gehiago joan, 24an eta 25etik 30era Oriok ez zun txalopa atera.

Bandera bost aldiz irabazi gendun (23, 25, 33, 34, eta 39an) eta 35ean hondora joan ginan. Indarra sobran, baina oso eguraldi txarra egin zun. Gero Bilbon bigarrenari minutu bat atera genion.

Orduan ez zan orain bezela, estropoa gutxi jokatzen zan. Donostikoa. Bilbon eta... Banakakoak, bal, dexeinte jokatzen ziran.

Entrenamenduak 15-20 egunetan egiten genitun, goiz ta arratsaldez. Jan, eguriean bi txuleta, ez dakit ba nik librakoak edo... eta porrotx txiki bat ardo. Urtez ez gendun edaten, orain bai, baina orduan badakitzu, ezjakina. Behin Bikamotako iturrian ezpainak busti eta batek hura ikusita salatu egin zun gta geto kargua hartu zidaten entrenatzera joan nintzanean.

Estropetan diru gutxi izaten zan, 23an Kontxan 12.000 pezeta irabazle entzai, eta gure alia zanak 1901ean bost errrial irabazi zitum. Nik haundieta Tolosan el año 30. mila pezeta.

Errexbimendua batzutan zeozer izaten zan. Herria dotoretu egiten zan. Donostian tranpa asko egiten zuen, quintzen Oriok galdu egin zun eta donostiarrek irabazi, orduan ze egin zuen eta kaja bat jarri, zaku zahar bat jarri gainean, kandelak piztu eta bat apaiz jantzi eta entierrua, kalle San Martín entierrua. Hurrengo urtean joan eta Oriok aiden irabazi eta burla egiteagatik Txokolate eta Txolarra zutik jarri eta botando etorri. Orduan kanta egin zuen. Bukaera hau da: *entierro antzero diguteka iten/aurten ez dute lanik kandelik erretzen*.

Bilbon ez zuen tranparik egiten, baina behin preso eduki niñuen, 35ean edo. Nik Aupa Orio esan eta guardia bat etorri zitzalten. – *Que ha dicho?* – *Aupa Orio, nosotros somos remeros de Orio. Aquí cuando gana el Athletic no dicen Aupa Athletic?* – Venga, a inspección. Abokatu bat nere aldera atera eta biok preso joan ginan. Calderón, comandante de marina, joan zan handik ateratzera.

Oraingo hauek salidak eta bueltak ez dakite. Bueltan beranduago sartu behar da arrauna, baina patroiak esan behar du noiz sartu eta laga. Orion Antonio Mari Uranga Jesuita izan da patroirik onena, bueltak ematen onena. Tostartia ere motzago jarri behar da. Guk 80 eramatzen gendun, orain 90-95. Hanka behar baino luzeago jartzen due, eta hankak luze-luzean jarrita nerbioak lehenago hiltzen dira. Baina hori esan eta lehengo zaharrak tontoak dira. Eta guk hortik atera degu bizia. Hamaika urtekin komunio generala egin eta denak lanera. Ni orduan itsasora, arrantzau egitera,

ДИДА



ОРИО

